



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA OHARRA

Lehiaren Euskal Agintaritzak argitzen du ez dituela inpugnatuko Bilbo eta Donostiako etxebizitza turistikoari buruzko ordenantzak

LEAk beharrezkoa ikusten du toki-korporazioak etxebizitza turistikoak erregulatzeko garatzen dauden arau berriei buruz duen bere jarrera argitzea. Horretarako, Euskal Agintaritzaren Kontseiluak 2017ko abenduaren 18ko eta 2018ko otsailaren 6ko data duten txostenetara jo du, non arautze hauek ez direla inpugnatuko azpirramatzen den eta non gai hau Kompetenziaren Sustapenetik lantzeko ikuspuntutik ekiteko beharra nabarmentzen den, LEAren eginkizun bat da, indarrean dauden arauak hobetzera edo zuzentzera laguntzen duten proposamenen arau informeak igortzea.

Era honetan, LEA azterketa juridiko-ekonomiko baten garapenean murgilduta dago turismoaren erabilerarako etxebizitza sektorearen gaur egungo egoera aztertuko duena EAE-ko hiru hiriburuetan. Ikerketa honen helburua, planteamendu urbanistikorako beharrezkoak diren udal araudiak, beharrezkoa ez den ezta proportzionala ere ez den edozein motatako sarrera muga bat edo beste barneratzen dituzten argitzea da. Justifikatu gabeko barrerak antzemanaz gero LEAk hurrengo Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorren egokitzapenean lan egingo du. Bai Bilbok eta baita Donostiak ere plan hauen izapideak 2019tik aurrera hastea aurreikusita dute.

Bilbo, 2018ko martxoaren 2a